

BALOREZKO PROPOSAMENA



Gure enpresak produktu berriztagarriak (txikle usaina duen mugikor karkasa tolesgarria, erre ezin diren sukalde tresnak, zapatila zolak...) eskainiko ditu. Gumsteiz-en helburu nagusia ingurumena errespetatzea izango da, beraz gure produktuak ekoizteko baliabide birziklatuak erabili egingo ditugu; txikle eta plastiko berrerabilia batez ere.

Gure enpresaren produktuen kontsumitzaileak ingurumenarekiko ardura duten pertsonak izango dira, baita gure diseinu berritzaileak gustuko izango dituztenak ere. Beraz, gure balio nagusia kualitatiboa izango da.



Lehiakideengatik bereizten gaituzten ezaugarriak honako hauek izango dira:

1. Produktu berriztagarriak material birziklatuekin eginak: infekziorik sortzen ez duten belarritakoak, labaintzen ez diren zapatila zolak...
2. Gure produktuak begi bistan desberdintzekoak izango dira, punta puntako diseinuak erabiliko ditugulako, gure diseinatzaile grafikoari esker.
3. Merkataritza justuan oinarrituko gara, gure produktua ekoizteko baliabide guztiak kontuan hartuko baititugu. Beraz ez gara gure prezio merkeengatik famatuak izango, baizik eta kalitateagatik, baina Vitoria-Gasteizko ekonomiara moldatuz.
4. Gure web orrialdean eskaerak online egiteko aukera egongo da, eta produktuak Espainia osora bidaltzeko aukera eskainiko dugu, SEUR enpresaren bidez.
5. Bestalde, Vitoria-Gasteizen izango dugu denda fisikoa.

Lantzen ari garen proiektua kutsaduraren arazoak murriztu ahal izateko balioa izango du. Modako diseinuak eskaini ez ezik arazo mundial honi aurre egiteko modu berri bat eskainiko dugu ere.

